



## BIZI DA, BIZIKO DA

- XABIER: Euskara bizi da, euskaraz bizi garelako.  
Eta biziko da, ondorengoei hala bizitzeko modua utziko diegulako.
- MIREN: Euskaldunak gara, ez Euskal Herrian bizi garelako, euskaraz bizi garelako baizik. Euskal gazteriaren eginkizun handi bat gazteria euskalduna izatea da.
- XABIER: Euskara indartu da, ez zekien askok ikasi duelako. Edo ikasi ezin zuen askok hurrengo belaunaldiei jakiteko modua bermatu dielako.
- MIREN: Zaila da belaunaldi batek hurrengoari, berak sentitzen ez duena transmititzea. Litekeena da hurrengo belaunaldiek aurrekoen galera berreskuratzea.
- XABIER: Hemen konbinazio guztiak dira posible, galtzekoak zein irabaztekoak.  
Hemen argi dagoena da euskararen izatea borondate kontua dela.
- MIREN: Borondate indibiduala eta borondate kolektiboa.  
Borondate politikoa eta borondate soziala.
- XABIER: Hemen argi dago, euskal herritar batzuek borondate handiegirik izan ez arren, gehienontzat euskara geure nortasun-ikurra dela. Argi dago aurtengo Korrikara bildu den milaka eta milaka euskaldun bezala, jaioko direla berriak, berriak eta berriagoak.
- MIREN: Zorionak Korrikazale guztiei, eta aupa, batez ere, gazteoi. Ager dezagun euskaraz bizitzea munduan geratzen diren pribilegio handietariko bat dela.
- XABIER: GORA EUSKAL HERRIA EUSKALDUNA!!
- MIREN: GORA KORRIKA ETA GORA EUSKARA!!

**XABIER AMURIZA**  
**MIREN AMURIZA**